BAGILLA-JUNIO
21
Egubena - Jueves
Bilbao, 1934

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 6,00 irko, iru ile.
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "
Beldayen itunduba

XXII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.718 zenbakija

Egunekua

¿Egija, nun...?

Egija dan gauza edeŕa ixan, eta gixaŕtetik iges-igeska dabilala dirudi.

Igazi dan igandian jazo ziran iazokun bakan batzuk bide diraťa izpaŕingijetan ira kuŕi doguzan izpaŕ bardingiak be, orixe esaten dauskube: egija gixaŕtetik iges-igeska dabilala.

卐 卐 卐

Aťaturiko igandian, Oñate'n, karlataŕen mitiña ixan zan.

Eta mitin aretara Bilbao'tik be karlataŕ batzuk juan ziran. Karlataŕak odol-beruak diranen entzutia, oraingua baŕik, lenagotikua dabe.

Naste-zaliak dirala be bein baño saŕijago entzun ixan dogu, ta izkilubakaz jotastuten zaliak dirala be bai.

卐 卐 卐

Zalekeri gusti oneik eurekan dabezanak ixan ziran, ba, aťaturiko igandian Bilbao'tik Oñate'ra juan ziran karlataŕak be.

Bitxabalak-ziaŕ joyezala be, zaratatsu ei-juazan, droga-bila. Eta Oñate'n, karlataŕen zarata bakanai erantzun ixan eutsenen batzuk be ixan ei-ziran.

Eta zaratetatik, buŕukara eldu, ta Izkilubakaz zaurijak edegi.

Oñate'ko buŕukeak eta abaŕ, bertan atonduko ebezan. Beraz ango gora-berak ezkaťubez aŕtegatuten, emenguak baño.

Emenguetan uleŕtu ezin doguna, Bilbao'rantz etozaťa Galdakano'n jazo yakala-ta eŕbitzat saŕtu gura ixan dauskuben katua da. Oñate'ra birea egin-ondoren Bilbao'rantz etotan belbil batetik, karlataŕ gaste bi atara ei-ebezan, ba, ta uri aretako osalarijagana eruan. Zauriťuta ei-egozan, ba.

Eta belbiletik atara ta osatzaliaganatu ebezan zauriťubai, zauri areik nun eta zelan egin ebezan iťandu biaŕa ixan zan. Eta iťaunok zuzenduteko, uriko poralai deťu eutsien.

Eta poralak, iťandu egin eutsen...

Karlista zauriťubak, baŕiz, uste bako iťaune aťei zelan erantzun jakin ezta, inguru areťako ortu batetik jauŕti eutsiezan sutots batzukaz zauriťu zirala erantzun ei-eutsen.

Eta gero, iñuenak egi-antz geyago ixan zedijantzat, Galdakano'ko abeŕtzale gaste bat zalatu eben, Aramendi'taŕ Joseba Koldobika abeŕtzale zintzua.

卐 卐 卐

Belbil-baŕuko notiñak kanpotik baŕuraturiko berunbilakaz zauriťubak ixateko, belbilak be ezaungaŕiren bat nunbaŕen ixatia bidezkua zan.

Belbilai, baña, begiratubak begiratu egin ixan eutsenaŕen, ezeteriko ezaungaŕirik ez ei-eutsen idoro.

Ordez, ostera, euren aŕtian etoŕan karlataŕ gaste bateri, suizkilu galanta idoro ei-eutsien.

Karlataŕ gaste arek, ¿zetarako ete-eban, suizkilu a?

¿Gixaŕtetik iges-igeska dabilan egija aldeztuteko, ala egija aldeztuten dabiltzan gixaki egi-zaliak eraiľteko?

Guk eztakigu. Eta gixaŕtetik egija iges-igeska dabilan aŕtian, jakin be eztogu egingo.

Jaun-Goiua'ren amaŕ agindubetatik zortzigaŕenari, lotsa gitxi yakaťa erakusten dogu, guk, beñepein.

Au ta gusti be baña, kistaŕ osuak garala esango dogu, "¡catoliku completuak garala...!"

Guzuŕezkuak baño ezkara, baŕiz: "¡hipocritak...!" Eta, olan, egija nundik nora dabilan eztakigula bixi gara.

Gixaŕteko naste au uleŕtuten beintzat, ezta eŕeza...

Idazti barrijak

Egunotan, iru idazti baŕi aŕtu doguz: "Eusko-oleŕkiak", "Eusko-alegiak" eta "Filosofía Vasca".

Iru idazti begikuok, Donostia'ko "Euskaltzaleak" bidaldu deuskubez.

Lenengo bijak, euzkeraz idatziťa dagoz. Irugaŕena, eŕderaz.

"Eusko - oleŕkiak" deritxon idaztiko oleŕkijak, 1933'gko urtian Uŕetxua'ko oleŕti-gudura batu ziran oleŕkirik onenak dira.

Gudu aretatik atetiko oleŕkijak be baŕdakaŕz ta oleŕkari ospetsubenak ekaŕi be.

Oleŕki-idazti au, begi-begiko yaku, ta ganeko egunetan baťiteke oleŕkijon gun-aŕtian saŕtuta ibiltťia.

"Eusko-Alegiak" deritxona, bizkaŕ batek idatzija da: Zabala'taŕ Matai pantzeskataŕ lekaide euzkeltzale ta oleŕkarijak.

Idazle onen ipuin-oleŕkijak irakatsi aundikuak dira. Joskerea, oťaťiño, nastau-samaŕtxuba darabilala dirudi.

Egija esan, itz-neuŕtubetan joskera ona erabiltťia, gauza gatxa ixaten da. Baña dana dala, be, apuŕ bat geyago arduratu ixan ba'litz, zeozer oťaztu eukezala uste dogu.

"Filosofía Vasca" deritxona, gaztelerazkua da, Altzo'taŕ Mikel buruñurdun Aba aguŕgaŕijak idatzija.

Itz-aŕiak, baña, Ariztimuño'taŕ Joseba'renak dira, "Aitzol" idazle jayuarenak.

Idazle argi ta trebe onek idazti bakotxari idatzi dautsazan "Itz - aŕietan" idazti bakotxaren gun osua ikusten da, idazti bakotxaren edesti osua.

Zorijonak, "Euskaltzaleak" bazkunari, ta eskeŕikasko idaztijok bidaldu dauskuzanari.

URIBITAŔTE'TAŔ IBON.

XXII Ipuña

Muza Bijoztuna

—¡Ai! betiko galdu dogu!—erantzun leban Amiñe'k—. Onezkero, basapiztijak jan dauskube Muza gaxua!

Eta sendagiliak iragaŕiriko gustija azaldu leutsan gero.

Muza'ren egikera on eta gurena anai gaiztuak eraiľtza baltzaz ordaindu lebela entzunaz, bakaťduna asaŕe-sumindu egin zan, eta seme arei irabaziťako zigoŕ betia emongo leutsela esan leban.

Esan eta egin. Ordurako, bakaltseñak eta beste notin asko auzitegijan batzalduta legozan-eta, aŕtez-aŕtez araxe jun zan bakalduna.

Bakaulkijan jezaŕi, altsein nagosijari dei, ta bai-diñotso:

—Ointxe berton anei gudari aŕtu, ta nire seme gustijak atxilotu eikezak, eta zijega-baŕu jabon.

Altseña ikaratuta lotu zanaŕen, agindu-ba betatuko lebala adirazoteko, eskuba buru-gane ipiñi, ta gero aldendu egin zan.

Beste gustijak be ixuikaratuta legozan. Bakaldunak, baŕiz, besterik eleutsen esan, auziťegiťik urteteko baño, ilabete osuan auzi-arazorik elebala erabiliko-ta.

Altsein nagosija atzera etoŕi zanian, bai-diťauntsa bakaldunak:

—¿Zijegaratu dozak nire seme gustijak?

—Bai, jauna.

—Eztok ori naikua, beste agindu bat be betatu biaŕko dok.

Eta bijak Amiña bakaldumiagana erdu ziralari, Muza'ren alarguna nun leguan iťaundu leban bakaldunak.

Sendagiliak arako aŕoztetxian itxi lebala entzunik.

—Ua aŕoztetxe oŕetara—agindu leutsan aťtseñari—, eta esandako anderea jauregira eratoŕkek, eraz ta deduz eratoŕi be, gero.

Altseñak edozenbat aundiki batu leuzan; eta danak zaldi-gane jaŕirik, aŕoztetxera jun ziran. Ara be Muza'ren alarguna aŕoztetxian zan-eta, altseñak bakaldunaren agindu-ba adirazo ta mando zuri edeŕa auŕkeztu leutsan.

Alarguna mando-gane jaŕi zan, eta sendagilia beste zaldi baten; eta aundijak erdijan aŕturik txaide-ziaŕ jauregira ťeruen.

Mando-ganeko anderea Muza'ren emaztia zala baŕeyatu bai'zan; ikusle gustijak gora ta txaloka aŕtzen lebezan, Muza be bixi zala uste lebelako.

Jauregiko atian bakaldunak berak aŕtu leban eskutik andera aťarguna, Amiñe'ren gelara eruateko.

¡Irurak alkaŕ ikusi lebena ba! Ixan zala ťamuŕaldija!

Negaŕez aŕtu leban bakaldumiak bere besuetan eŕan gaxua; eŕanak tamalaren tamaťez ezin leban itzik esan; eta bakaldunak be negaŕari emon leutsan.

Apuŕtxu baretu ziranian, jazorikua eŕanaren abotik jakin gura ixan leban bakaldunak; eta arek gustija azaldu leutson.

Aŕendan, bakaldunak:

—Ilgaŕi d'ra, bai, anai gaiztuok, eta eztautsek azketsiko; lenago, baña, Muza gaxuaren erijotza eŕijari iragaŕi biaŕa dogu; eta ilotzik eztogunaŕen, ileteak be ospatu biaŕ dira.

Beriala, aťtsein nagosija deťuta, bakalduri-ondoko zelai-erdijan atxurizko kozko aundija eregiťeko agindu leutsan.

Altseñak edozenbat langile erabili leuzan-eta, egun gitxi-buru kozko edeŕa amaťuta leguan. Kozkope ilobija agiri zan, Muza'ren irudi ta gusti.

Ileta-egunian eŕi osua zelairatu zan. Bakalduna aťtsein eta aundiki lagunakin kozko-baŕu saŕtu zan, eta uŕez egalunduriko ziŕi banatan jezaŕi ziran.

Beriala, zaldizko gudaltaldia uŕeratu zan; geldiro-geldiro kozkuari bira - egin leutsaen biŕiťan, eta gero ate-aťdian lotu ziran.

Orduban bakaldunak:

—¡Muza, ene seme! Gure ezpata zoŕotzat, gure beso-indaŕa, gure zanetako odola, ¡euri argija ikuserazoteko gauza ba'litxaz! Erijo-goguak, baña, goiko Bakaldunak agindu-ta, betiko itxungi dau ire bixitz-argija.

Bakaldunak amaťu lebanian, zaldizkuak aldendu, ta bixaŕ zuridun eun agure uŕeratu ziran mando baťtzetan.

Lekautijak ziran: bixitokija atxulubetan leben, eta Siri'ko bakaldunen iletararako baño etziran agertzen.

Aguriak, buru-gane idazti done bana lebela, kozkuari iru bira eginda, ate-aldian geldiťu ziran.

Arian, euretariko zaŕenak:

—Bakaldungai bulaŕtsu ori! ¿Zer egin daikegu eure aťdez? Idazti zaŕak arakatu ta ikasijaz ala gau-ta-egun auzpez atoyak-otoi egiñaz euri bixija atzera emoteko gauza ba'gintxakez! Goiko-Jaunak, baña, erijo-menpera bidaldu au betiko!

Aguriak aldenduta, bostamaŕ neskatila lirain uŕeratu ziran zalditxu zuri banatan; eskumaetan uŕezko saskiťuak lekaŕezan aŕi-bitxiz beterik.

Zozkuari iru bira egin, eta ate-aldian geldiťu ziranian, euretariko gastienak onan esan leban:

—¡Bakaťdungai gaste leŕden! Gure edeŕ tasuna opaldu ta ukañijaz eure begijak argiztu al ba'leikeguz; Erijo-luak baña, betiko itxi dauz.

Neskatileak aldendu ziranian, bakalduna ta andiki-lagunak jagi, ta iru bideŕ bira-egin leutsaen iľobijari.

Gero, bakaldunak zutunik:

—¡Ene seme ťaztan, ene begijen argi ori! Betiko galdu ete-aut, betiko? ¿Ez-ete-akusket egundo?

Eta iľobija negaŕ-malko beroz bustiťen leban.

Gero, negaŕ-zotinka uriratu ziran danak.

(Amaitzeko)

Ipuñok "Euzkerea,,'n argitalduten ziran, baña aldizkingi aren aro baŕija dala-ta beste era bateko idazlanak argitaltzen asi diran ezkero, geure oŕitxu onetan imiñi gura-geunkez.

Benetan txukunak dira, euzkerarik edeŕenean, "Nabaŕiztaŕa,,'ren euzkerea, ba, argi ta gozunatarikua dogu.

Euzkotar umien aldez

卐 卐

DEYA

"Jaungoikoaren eskuetan gaude, ez geure etzavenetan: augatik ba jaŕai dezagun auŕerantz."

Shakespeare.

Ume batek jayotzen danetik erakusten du zertarako dan, edo gertarako izan leikean, ume ori adiraldu edo estudiatu egin beaŕ degu, geuk amok batez-ere zertarako dan igeŕi aŕtean.

Baña onetaŕako eroapen aundia beaŕ da, eta asti asko umeari opa beaŕ zaizka, eta ama batzuek ez dute oŕetarako astirik izaten. Ezin esan gentzake umien deyak ardurarik ematen ez diotenik ere. Eurak beintzat ez dute oŕelakorik uste.

Baldin txiroak ba'dira naikoa lan dute gauŕ egunean (eta len ere bai noski) euren sendiarentzat ogia sortu eziñik. Ez noa ba onetzaz ezer esatera.

Baña guraso aberatsak izan oi-dira geyenian euren seme alabatxoen ardura gutxien izan oi dutenak. Ikastetxe aundi, izentsu eta gareztietara euren umetxoak eramanaz gustia egiña dutela uste izan oi dute.

Au erakutsiko diote noski ona izaten, an zuzenduko diote biotza, an zabaldu adimena, an ageŕtu bere deya, an bere deyari jaŕaitzeko beaŕ dituan ťaguntza guztiak eman.

Gauza geyegi dira oyek nor bere umeari beste batzuek egiteko. Ondo egiteko beintzat. Al dan bestian egiteko ere naikoa dira.

Ama batek Jaungoikoak emanda du bere umetxoaren biotzean eta adimenean irakuŕteko ala ¡ez ordea ama ez diranak! eta ez dute amak euren biaŕ izanik betetzen iñoren eskuetan umeak utziaz, naiz ta esku onak izan, amaren eskuak ordezkorik ez dutelako, lan onetan.

Umea ondo zaiťu ezkero eta bere gauza gustiai adi egon eta aŕetaz jaŕaitu igeŕi leikio bere deya.

Izan leike sei edo zortzi uŕtean batxiler egin eziñik dabilen mutiltxoari indaŕ aundiaz luŕak deitzea. Bere gorputz indaŕtsu osasuntsuak aizetan, eguzkitan, eta euriťan lana egitea eskatzen du. Bere oñak ez dute oñetako estu dotorerik nai, bere idunak ezin leike aťkandora gogoŕ, estu ta korbatarik erabili. Datiko ta acusatio beti nastu egiten ditu baña luŕera joko ba'leu bera maitetasunez landutzen dutenari eskeñita dauan bateko eun agian jasoko leuke.

Beste mutiko bat saleroskетarako jayoa da. Amicis'ek esaten duan Garofi mutikuen antzera dabil lapitza lumagaitik trukatzen, beretzat erositako liburu ta kuadernuak beste lagun batzueri saťtzen, gero beretzat merkiagoak erosteko, beti denda bat bere brusaren patriketan daramala.

Injenieru edo lege-gizon egiten ba'dezute aita edo osaba ala diralako, mutiko ofi bere bizitzan auŕera eŕteteko eta bizitzako guda gogoŕean garaitzeko beaŕ dituan izkilu edo armarik egokienak kendu diozkatzute.

Ume batzueri itxasoak dei-egiten diote indaŕ gundiaz. ¡Itxasoa dan zabala! ¡Itxasoa dan edeŕa! Itxasoa dan urdiña ta zoragaŕia!

Bai ditu itxasoak urdin ez dagoan egunak, baña ume aŕk egun oyetan ez du itxasora begiratuko, urdin, dizdiratsu dagoanean baizik.

Beste ume batzuek beŕiz lekaide edo lekaimetzarako deya dute.

Zergaitik ete, oŕilako aŕatsalde batean, beste askotan bezela ťekaimeen eleizara Ama Neskutzari "Loreak" egitera juan zan neskatxo arek, iñoiz nabaitu ez zuan ikutua nabaitu zuan bere baŕnean?

Egun aŕtatik onuntz mojen etxeko kanpaya entzuten duanea bere biotzak taupada saŕiagoak ditu. Len ikusi ez dituan edeŕtasunak dikus lekaimeen loŕategian.

Etxe ura dan baketsua! Ango bizitzak izan beaŕ duan barea! Eleizatxo aŕtan sartzen dan bakoitzean bere baŕuan nabaitzen duan alaitasuna! Ate aren auŕetik ezin igaro pixka batean baŕura saŕtu gabe

Etxe artantxe dauka bere biotza ta gogoa, antxe aukeratu du bere maitetasunarentzat kabia... Araxe juan aŕtean ez du atsedenik izango Jaungoikoak araxe deitzen dio-ta.

AŔITOKIETA.

Naskaldija

"L" lenizkija Etxepare'ren oleŕkijetan bai-dala esan ťeuguban lengo baten eta lenaldijan ixan, be.

Nik baño lenago ori uaŕtu lebena bai-dira. Lenen-lenen Soloeta-Dima abeak "Ensayo de unificación de dialectos Baskos" idaztiñuan, 38'gaŕen ingoskijan.

Gero "Mibisus" jaun jakintsubak 1929'gaŕeneko "Euzkerea,,'ren boskaŕen zenbakijan, "Las flexiones del pretérito del verbo transitivo" lanan.

Ona emen "1" lenizkijazko Etxepare'ren zatijak:

1 Biozian diraustazu gertuz ama eztia
zure orduko doloriak eta bihoz zauriak
begiez nola zenakusan zure iabe handja
orotarik "lariola" odol preziatuya
hek nigatik ziradela ari nuzu konduya.
("Doctrina Christiana" idazpuruba daun oleŕkijan.)

2 Andre edeŕ gentil batez hautatu zait begia
heŕi orotan gauza oroz eztu bere paria
othoi zebat banegion "laŕadala" egia
biderikan lizatenez ninzan haren grazian.
("Amore gogoŕaren despita".)

3 Jaun eŕegek mezu nenzan ioan nengion bertarik
gaizez "lagola" enzun nuyen bana nizez ogenik
iztezbegiez eneyen malizian lekurik
ioan nendin enagien ogen gaŕe ihesik.
("Monen Bernat Etxaparere kantuya".)

Baldintza-aldijan eta gera aťdijan beste eredu batzuk be ba-dira "1" atzizkijaz.

"Ainguruyak bano oboro "ezlaŕake" gaizkirik." ("Emazten favore").

Oyenaŕte'k baldintza-aldijan eta gero-aldijan ixan-ezik eztaŕabil "1" lenizkija.

AGAREL.

Deunen bixitza

Domeka deuna, autorlea

Gizaseme apal eta deun au Araba'ko Biloria'n jayo zaťa uste dabe geintsuak; Astorga'ko irakurgai zaŕ batzuk, be orixe adierazten dauskue. Domeka'ren jayoteŕia landera ta bere gurasoak be txiroak ziran-ta, umezaroan ez eban ikasketarik egin: oŕaitik be, guraso kistaŕak euren semetxua kistaŕto azi eben. Luŕeko gauzen ez ereza ta gogoa galtzeko aŕiskua gaztetxu zala uleŕtu ta goznartu ebazan Domeka'k. Aŕiskuetatik iges-egin nairik. Gopatzen baten saŕtzeko erabagia aŕtu eban, eta Balbanera'ko lekaipuruagana zuzendu zan asmu oŕegaz. Ikasketak egiñaz, gizon eta eŕiei zerubidea irakasteko gai izan nai ebala-ta, Bedita deunaren gopatzan aŕtu egiala eskatu eutsan ťekaipuruari. Onek ezetza emon eutsan-ta, asmu beŕberaz "San Millán" deritxan lekaretxera jo eban Domeka k; baña emen be ezin izan eban bere guraria loŕtu. Orduan, bere asmuak ustel urten eutsoela-ta, "San Millán,'dik ur, oyan itzalean bizi zan paŕau bategana zuzendu zan gazte zintzoa, ta, aŕen bai aŕen, Jaunaren bideak irakatsi egiozala eskatu eutsan paŕau bakaŕtiari. Onek itzaldi gartsu baten bidez, luŕeko aukera ta andikeriak ezetsi ta arbuyatzen irakatsi eutsan Domeka'ri ta oyanean beretzat eregita eukan txabolatxua be eskiñi eutsan, lekauti lez antxe biziteko.

Paŕau esku zabalaren txabolea beretzat artzeari ez eutsan Domeka'k ondo eretxi. Ori beretzat laŕegi zala-ta, ongileari eskeŕak egin ondoren, aldendu zan andik, Bureba'ko toki batera, gauŕ Kaltzada'ko. Domeka deritxon tokira, joateko. Txarakaz beteriko baso itzala ta berebiziko ťapurtokia zan aldi aretan Domeka'k beretzat autu eban oyana. Lapuŕak saŕi urteten eutsen bidera, andik igaroten ziran bidazti ta aŕotzai. Bizia galtzeko aŕiskuan ebiltzan anai beaŕtsuok al bestean laguntzea, orixe izan zan beti Domeka eŕukior eta maitalearen asmu nagusia. Lanean asten da ta ekiñaren ekiñaz eta izerdi askogaz txaŕakea eratsi, tokia garbitu ta oyanean zeaŕ bidea idegiten dau. Gero luŕak landu ta mastiak be ipinten ditu ta zeruko Amaren izeneko eleizatxu bat be eregiten dau, lan bitaŕteetan berak otoitz egiteko ta andik igaroten ziran aŕotzai baŕes eta estaťpea emoteko. Bost urtean ekin eutsan. Domeka'k zeregin oŕi. Lanean, otoizketan eta eŕuki-egintzetan emon ebazan bost urteok.

Onetan Gergori, Ostia'ko gotzaña ta Aita Santuaren ordezkoa, igaro zan andik. Geideak zintzoro maite ebazan Domeka'k: zeru-bidean geideok obeto lagundu al izateko, ekian baño geyago ikasteko egaŕia antxiñakoa eban, eta Gotzain jaunaren moŕoi egiñik, gogo onez jaŕaitu eutsan, aregandik ikasteko ta aŕen lan onetan bera be laguntzale izateko asmuz. Luzaroan ibili zan Gotzañaren menpean eŕirikeŕi, eta poz-pozik lagundu eban bere nagusia gizon eta eŕiei zeru-bidea irakasteko salean. Gitxien uste zanean, il zan Gergori gotzaña. Onen eriotzeak atsekabe samiña ekaŕi eutsan moŕoi zintzoari. Geideak albait geyen eta ondoen lagundu nai ebazan; baña oŕetaŕako nora jo ta zer egin ez ekian. Azkenean, gauzea astiro gogoratu ta auznartu ondoren, ťengo tokira itzultzea erabagi eban, berak zeru-bidean auŕeratzeko ta gizasemeak oŕ etan laguntzeko, eretirik onena antxe izango ebala-ta. Ba datoŕ, ba, lengo tokira ta baŕiro be lanean astenda. Bidaztien onerako oyanak iñausten, txaŕakak erasten, bideak egiten, tokia garbitzen, uxingirak agortzen eta olako lanetan aspertzeka diardu. Domeka'ren lanari eskeŕak lengo oyan itzaťa, orain gizonen bizitoki izateko gai da.

Zubia egin beaŕ zala-ta, inguruetako biztanleai ots-egiten dautse, baita Domeka'ren deyari geyenak gogo onez erantzun be. Ba zan oŕeitik be biztanleen aŕtean gizatxaŕ bat, Domeka'ren lepotik eŕi ta baŕe egin nai leukean gizon maltzuŕa. "Nik be zubigiñen lagunduko neuke—diñotso deunari—; baña burdia erabilteko zezen uzu bi baño eztaukadaz. Zezenok or meŕ oŕetan dabiltz. Aexek buztaŕtu ta ťaŕ koen saŕtu nai ba-dozuz, zubi ori egite aŕi-loŕean ekiteko geŕtu ta prest nago. Baseŕitaŕ maltzuŕaren oparjari abegi o dagitso Domeka'k. An doa mendira zen uzu aen bila ta idi otzanak izan ľ 'liran buztaŕtzen ditu. Akiľupean dakar antxiñatik ezita egon bai'liran, larako eŕez sartzen ditu ta baseŕitaŕari diñots oŕa or zure zezenak burdia erabilteko ge tu: orain zuk, eskiñi daustazunez, aŕi lo ari ekiozu".

Zubia egin ondoren, etxeak eregi, bi tanleak batu ta gauŕ erderaz "Santo Do mingo de la Calzada" deritxon uria ira eban Domeka'k. Beti nekatuta eta saŕi g xorik ara eltzen ziran bidazlientzat aŕo tegi ta gexoetxea eregi beaŕ zirala-ta, bi tanleai laguntza eskatzen dautse. Oŕet rako beaŕ ziran zulak ebagi ta oyanet ekaŕteko be lan asko egin beaŕ zala-t lenengotan nagi ta mukeŕ egozan ang biztanleak; baña gero, Domeka'k aizko txatxaŕ bategaz arterik sendoenak bei goan erasten ebazala ikusirik, zuritu z ran biztanleok be ta onein laguntzaz laste eregi ebazan Domeka'k ostatu ta gex etxea. Aŕoztegiaren ondoan oxin edo poz bat egin ebalako, aseŕatu egin yakaza auzo batzuk eta lotsabakoenak aŕika b egin eutsoen; baña Domeka etzan ikara tu; aŕpegi naroz aŕikarjakana zuzend zan eta aŕiak gizon deunari ikuturik ez eutsoela, egiten ikusirik, auzo sumin berok baŕetu ziran eta aŕiak eskuetati luŕera jausi yakezan. Bein baten semitaŕ teko emakume on eta eleizkoi bat etoŕ yakon ikeŕtaťditxu bat egitera eta Do meka'k beronentzat egindako ilobia era kutsi eutsan. Emakumeak aŕituta diñotso baña zeure iľobian au eleizatik onen uŕi ¿zeŕ dala-ta egin dozu? Eta arabar deu nak darantzutso: Ez egizu oŕen kezka t ardurarik izan. Edo eleizeak nire azuŕa jaŕaituko dautse edo nire azuŕok eleizaŕ eroango dabez. Deunak goi-argiz iragaŕ eban ori urte gitxi baŕu bete zan. Ber bizitza osoa gedeai on egiten igaro t gero, onoimenez eta zerurako irabazki aberats eta adin andiko zala, il zan Do meka deuna. Eriotzea ba etorkiola ezagu turik, eleizakoak eraspen andiz aŕtu eba zan eta 1109'gaŕen urteko oŕila'ren 12'an deunen eriotzaz, il zan, bizitza deuna egin eban gizon apaŕ eta zindo au. Jangoikoaŕen geideak ain maite izan ebazan Domeka'ren iľobia, alatz aŕigaŕiz ospatsu eta aintzatsu egin eban Goiko-Jaunak.

E.'TAŔ J.

Doibatz edo Elexa Deuna

Kisto'k irasi eban Elexea'ri Eŕomaŕa deritxogu. Zergatik, ete?

Kepa deun, ťenengo Aťa Santua'k bere azkenengo urtiak Eŕoman egin, bere bixitokitzat autu ta bere odolez Eŕoma busti ebalako; aŕezkero Aťa Santu'rik geyenak Eŕoma'n bixi ixan diralako. Eta Elexa Eŕomaŕ au: "bakaŕa, deuna, orokaŕ edo katolikua ta apostoluekandikua da".

BAKAŔA

Bere seme guztijak, nai ta ludiko bastaŕ guztijetan bananduta egon sendi bakaŕaren atalak diralako: Jaungoikua aťa daben sendijaren semiak.

Artaťde bakaŕa eraltzen daben ardijen Artzain ikusgia Kisto ta ikuskoŕa Aťa Santua diralako.

Eliztaŕ guztijak gorputz bat egiťen dabelako; burutzat Kisto daben gorputza.

Siñismen bardiñak, itxaropen bardiñak, goi-maťasun bardiñak alkaŕtuta dabezalako eliztaŕ guztijak, Elixa au bakaŕa da. Sakramentu edo ikuŕton bardiñez alikatuten diralako; agintari bakaŕari menperatuten diraťako, eskutuki, opalkun ta onbide bardiñak daukezalako, zeruratzeko bide bakaŕ-bardiña daukelako... Elexa oni Bakaŕa deritxogu.

DEUNA

Bere Irasle, Bere Senaŕ, Bere buru ta aŕtzaña Jaungoikua'ren Semia, Deun'en Deuna dalako Elexa oni Deuna deritxogu. Bere irakastija, bere lagijak, bere agindu-ak, bere eskutukijak, bere guŕkera, bere Opalkundiak ta bere Ikuŕton edo Sakarmentua'k deunak diralako, Deuna deritxogu Elexa oni.

Espiritu Santua'k bere goi-eskaŕez deundu ta Espiritu Santua'k jauŕi ta zuzenduten dabelako Deuna deritxogu Elexa oni.

Aldi guztijetan deunak ixan dabezalako deritxogu Deuna Elexa oni.

Eliztaŕ guztijak deunak ixan ez da be, Deuna deritxogu Elexa oni, Elexa au zeruan ixango daben dizdizera ta garbiťasunera eldu eztaťako, ludi au ziaŕ doyan bitaŕtian onak eta txaŕak ixango dauz bere magalean.

Berau dala-ta jaupari, abade ta siñismena ta garaiko onbidiak beste batzui emoten diñardogun aŕtian be onak ta txaŕak gagoz. Judas jaŕale batzuk be ba-dagoz; eurok baña eztira Elexa'ren goi-bixiz bixi eta euorakaťik diñosku Elexa Deuna'k: Eurok diñuena egin, ez egin eurok dagijanik" (Mat. XXIIII—3)

Eta gauza aŕigaŕija txaŕkerija ludijan azijago eta Elexa Deuntasuna argijago ikusten da. Elexa beti, nai ta txaŕkeri aŕtian bixi, garbi jagon ixan da. Eta ludijon txaŕkerijari topia imiteko gauz Elexa auxe baño besterik ez da ixan.

Ludijan diran beste uskuŕtz edo erlejiñuai begirakada bat ba-damotsagu txaŕkerija nagusi dala ikusiko dogu; uskuŕtz oŕen irasliak eurak be txaŕkeriz bijotzak usteldutа dabezan gixonak dirala argi ikusiko dogu. Onetzaz len be zerbait esan gindun ezkero ez goyaz gauŕ ezer aťatuten.

Katolikua danak bere ixatia deunduteko naikua dau Elexa'ren agindu-ak zintzoro betetutia; garaiko uskuŕtzaliak euren agindu-ak zintzoro betetutiagaz ez dabe euren ixatia apuŕen bat zuzendu edo baño egiťen.

KATOLIKUA

Katoliko itzak orokaŕa, au da, ludi guztirakua ta ludija ludija dan aŕtian iraungo dala esan gura dau.

Judea'n sortu zan eta ludi osua arakatu dau eta ludi osuak bertan sartu biaŕ dau. Eŕegutu gixon guztijen alde, diño Paul Belduna'k. Gauza atsegintsua da Goiko-Jauna'rentzat, gixon guztijak zeruratu gura dabezalako.

Katolikua ta orokaŕa da... ludi osuan azaldu ez ba-da be, ludi guzti-guztijan azalduko dalako; baztaŕ guztijetan semiak dabezalako eta seme guztijok goi-lokaŕi bardiñez alkaŕtuta egonaz ganera, Agintari bakaŕ bat baño ezagutzen ez dabelako ludi guztijan: Kisto'ren ordezkarija dau Aťa Santua.

APOSTOLUEKANDIKUA

Eťexa-jauregi edeŕ au amabi Apostulue'n ganean jaso eban Josukisto'k; apostoluak ziran, ba, Elexa-oñaŕi edo eustaŕija eta Elexa'k ludija ludija dan aŕtian iraun biaŕ zalako, euztapi edo oñaŕijak be irauntia biaŕekua zan. Eta apostoluak ilkoŕak ziran ezkero, bere oñordekuak dira Elexa oñaŕijak gauŕ: Aťa Santua ta Gotzain edo obispuak.

Berauxe da geure Eťexa-ezaugaŕirik bikañetarikua. Asi Pi XI'gnan. eta Elexa'n ixan diran Aťa Santua'k zenbatuten ba-doguz gixaldirik gixaldi... Kepa Deun, lenengo Aťa Santua'gar elduko gara.

Aulantxe iñutsen siñauzliai Tertuliano'k bere aldijan; Zeben eťexen sorkuna dagiskuzube; gotzañik gotzain igon eta iya Kepa Deuna'gana erduten zarien" (De praeso.—20).

Berau dala-ta geure siñismen-egija da: Geure Elexa'tik ataz eztala zeruratzerik. Egija ezagutu eta katolikua ixan gura eztabenak, eztau Jaungoikua'k irakatsirikorik siñistu gura, eztautso Jaungoikua'ri Bera'k gura daben gurkerarik emon gura eta Jaungoikuaren gurarijak ezagutu eta 'bete gura eztabenik ezin zeruratu dagike.

GEURE EGINBIAŔA.—Geure eginbiaŕ eten bakua Elexa'tik ataz bixi diranak baŕuratu dagiťazan otoi gau ta egun egiťia da; onetarako bide bijok jaŕaťiťa litzakigu ona: Goiz-gabetan aŕen auxe aťa gura bat otoťuez: "Jabier'ko Pantzeska Deuna'aŕen... siñisge gaxuen alde".

Eta asmo bedonegaz geure eguneroko egikun on guztijak Josu'ren Bijotz Guŕgaŕija'ri goxero eskiñi.

ASTITXE.

GAUTEGIZ-ARTEAGA

Ila onen 10'an egin zan iragaŕiťa eban antzeŕki-jaya eta gure antzezlarijak ain edeŕto lan egin ebelako baŕiro antzeztu biaŕian aurkitzen dira eta datoŕen igandian ila onen 24'gaŕenian ixango da aŕatsaldeko lauretan ostera be antzeŕki-jai edeŕa, lengo egiťaraban ageŕtu ziran antzeŕkijak eta abestijak ixango dira, au da "Gurutzepe" eta "Moŕoi-jatoŕa".

Notin asko geldiťu ziran lenguan ikusi-barik aretua txikitxuba zalako aintzetentzat, baña ikusi ebenak ondo pozik geldiťu ziran eta uŕengoan be ikusteko geŕtuta dagoz.

IZPAŔKARIJA

Jesús Ostolaza
BERGARA
卐
FABRICA DE INSIGNIAS DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO IKURRIÑEN OLEA

Fábrica de escopetas finas de caza. Eizara'ko suizkilu berezijen olea.
Agirre y Bastida
EIBAR. — GIPUZKOA

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

Donostia - FULY GERRIKUAK - Osatebaguntzatubentzat eta uŕdail-jausi-duentzat